

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ez dakizu nola entrenatu zure helburuak lortzeko? Osasuntsu egon nahi duzu?

Gure **gimnasio pertsonalizatuak** lagunduko dizu. Bezero bakoitzak profil pertsonalizatu bat izango du. Izena ematerakoan, profila sortuko dute pantaila batean, haien helburuak jarri eta [galdetegi](#) bat bete ostean **makinak plangintza** bat **sortuko** du pertsona bakoitzerako **egokituta**. Gainera, izena ematean tabletak **kodigo** bat sortuko du bakoitzarentzat, horren bidez, gimnasioaren makinetan bakoitzaren kodigoa sartzerakoan, makinak **zer ariketa eta nola** egin behar diren azalduko du. Horrela, bezeroek modu **eraginkorrean** eta **independienteagoan** lortuko dituzte haien helburuak.

Bestalde, **aplikazio** bat izango dugu. Bezeroak bertan edukitzeko haien plangintza. Horrela, aukera edukiko dute haien ariketa pertsonalizatuak eta entrenamendu osoa gimnasioaren makinetan ala etxean aurreikusteko. Gainera, haien entrenamenduaren aurrerakuntza ikus dezakete. Aplikazioaren bidez **premium harpaidetza** hautatu daiteke eta horrela **dieta** ezberdinak eskuratu daitezke. Dieta horiek pertsona bakoitzaren entrenamenduaren arabera, zer mantenugai kontsumitu behar dituzten kontuan izanda, menu egokiak izango dituzte.

Gure helburua gimnasioaren bezeroak **independienteago** izatea da eta entrenamendua erraztea da, **helburuak modu osasuntsuan** eta egokian lortzen dutelarik.

